
2015- 2019

Emakumeen eta
Gizonen
Berdintasunerako
II. Plana.
Zierbenako Udala

II. PLANA HOBETZEKO ARLOAK

Jarraian, informazioa biltzeko egin diren parte-hartzeko ekintza desberdinetan jaso diren hausnarketak eta proposamenak agertzen dira.

| BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA |
|---|
| Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana herritar, instituzio eta Udaleko langile guztiei hurbilaraztea |
| Udalak antolatzen dituen zerbitzuen eta jardueren erabiltzaileen sexuaren arabera datuak bereiztea. |
| Udalarentzat berarentzat eta kontratatutako zerbitzuentzat berdintasun arloko trebakuntza prestatzea. |
| Estilo komunikatiboa, berdintasunezkoa eta inklusiboa bermatzeko, udalak eskaintzen dituen publizitatea, irudiak, lengoaiaren erabilera, zerbitzuak eta jarduerak zabaltzeko tokiak zaintzea. |
| Jaietan genero-ikuspegia txertatzea: batzordean berdintasuna sustatzea. |

| BALIOEN ALDAKETA |
|--|
| Emakumeek duten zaintzaile-rola aldatzea. |
| Hitzaldiak eta ikastaroak eginez, gizonek ere zaintzaile-lanak egin ditzaten sentsibilizatzea eta trebatzea. |
| Gabonetan jostailu ez-sexistei buruzko kanpaina antolatzea. |

| GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA |
|---|
| Haur-zaintzarako zerbitzuen ezarpena bultzatzea (haurtzaindegiak) |
| Estalitako haur-parkeak egitea. |
| Erantzunkidetzak jarduerak antolatzea. |
| Familiei zuzendutako koedukazio jarduerak antolatzen jarraitzea |
| Jarduera-antolaketan ludoteka-zerbitzua sustatzea. |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA |
|---|
| Neska haur eta nerabeen kirol-praktika sustatzea. |
| Emakume kirolarien aitortza-jarduerak antolatzea. |
| Emakumeen ahalduntzea lortzeko tailerrak sustatzea. |
| Emakumeek duten zaintzaile-rola aldatzea. |
| Enplegurako bitartekaritza-zerbitzuak duen lanerako prestakuntza-estrategia errebisatzea, emakumeen eta gizonen dibertsifikazioa eta berdintasuna sustatzeko. |
| Udalaren enpresa-hornitzaileek emakumeak kontrata ditzaten kanpainak egitea, azpi-ordezkatuak egonez gero. |
| Emakumeen autoestimua hobetzeko jarduerak antolatzea (ahalduntze programa). |

| EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA ERROTIK KENTZEA |
|---|
| Sare sozialek dituzten arriskuak lantzea ama, aita eta beren haurren artean. |
| Emakumeen kontra erabilitako indarkeriari buruz sentsibilizatzea eta prebenitzea, ez hezkuntza zentroetan soilik, baita etxeetan ere. |
| Zierbenako gazteriaren baloreak aztertzea. |
| Udalerriko segurtasun mapa egitea. |
| Jaietan sexu-indarkeria eta indarkeria sexista prebenitzeko jarduerak txertatzea. |

5. JARDUERA PLANA

Jarduera plan egituratua egin da, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren printzipio eta lan-ildoetan oinarritua.

Emakume eta gizonen berdintasunerako Gobernantza

Kontzeptu horrek generoaren arloa zeharkako bihurtzeko helburua duten oinarrizko alderdiak batzea suposatzen du, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa bete eta garatzeko.

4/2005 Legeak, printzipio orokorretan, promulgatzen du botere publikoek egiten dituzten politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia barne hartu behar dutela, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko (3. artikulua).

Balioen aldaketa

Balioen aldaketa VI. Planaren erronka nagusietakoa da. Gaur egungo gizartea bere sinkretismoagatik ezaguna da, hau da, balio modernoek eta ohiko beste batzuen arteko elkarbizitzagatik. Hala ere, euskal gizartea berdintasunaren mezua barneratzen ari den arren, errealitateak koherentzia falta erakusten du emakumeek eta gizonek hartzen dituzten funtzio eta roletan, edo beren denboraren gizarte-balioan eta erabileran.

Emakumeen ahalduntzea

Ahalduntzeak emakumeen bizimoduari eragiten dioten baliabideen eta erabakien gainean autoritate eta botere-areagotzea sustatzea dakar. Emakumeak banaka nahiz taldean jabetzeko prozesuari buruz ari da, zeinaren bitartez erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartzea areagotuko den, boterera iristea ahalbidetuko duen, eta eragina izateko ahalmenean ondorioa izango duen. Ezin izango dira etorkizuneko gizartea, eta ekonomia eta gizartearen garapen osoa lortu, bizitza ekonomiko eta politikoa eta maila guztietako erabakietan emakumeen parte-hartze osoa ematen ez bada.

Gizarte-antolakuntza erantzunkidea

Gizarte-antolakuntza erantzunkideak bizimodu pertsonala, familiara eta lanekoa uztartzea erraztea esan nahi du, gizonen erantzukizuna lortzea etxeko eta zaintza arduetan, enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiararen beharrei egokitzea eta zerbitzu sozio-komunitarioak edo denboraren erabilera berriak egokitzea sustatzea.

Emakumeen kontrako indarkeria

Ilido estrategiko honek epe laburrean eragina izan nahi du, biktimen babes eta arreta osorako neurriak eta baliabideak eratuta. Gainera, emakumeen kontrako indarkeria mota ezberdinak emakumeen eta gizonen desberdintasunetik eratorritako gizarte-arazo gisa ikusarazten dituzten sentibilizazioko eta prebentzioko jarduerak ere lehenetsi behar dira, pixkanaka horiek murriztu, eta azkenean, guztiz desagerrarazteko.

II PLANAREN HELBURUAK ETA EKINTZAK

Diagnosi fasean jasotako beharretan oinarrituta ondorengo helburuak eta ekintzak proposatu dira. Proposamen horiek hurrengo urteetarako lan-ildoak zehaztuko dituzte:

| EMAKUME ETA GIZONEN BERTINTASUNERAKO GOBERNANTZA | |
|---|--|
| HELBURUAK | EKINTZAK |
| <p>G.1. helburua Berdintasuna sustatzen duten egiturak sortzea</p> | <p>G.1.1. Berdintasun Plana bultzatzeko baliabide profesionalak finkatzea.</p> <p>G.1.2. Udaleko aurrekontuetan berdintasunari partida ekonomiko bat egokitzea.</p> <p>G.1.3. Udala eta herriko emakumeen elkartearen arteko koordinazioa sustatzea herritarren artean berdintasunaren aldeko ekimenak bultzatzeko eta elkarreak inplikatzen.</p> <p>G.1.4. Berdin Bidean parte hartzea.</p> |
| <p>G.2. helburua Emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia barne eta kanpo mailan jakinaraztea</p> | <p>G.2.1. Zierbenako Berdintasunerako II. Plana egin eta onartu dela EAEko Berdintasun Erakundeei jakinaraztea.</p> <p>G.2.2. Emakumeen eta gizonen berdintasuna, aurrerapenak eta eredugarriak diren ereduak ikusaraztea, web orrialdearen, aldizkarien eta egutegiaren bitartez.</p> <p>G.2.3. Udalerrian publizitate sexista zelatatzea.</p> <p>G.2.4. Idatzizko eta ahozko komunikazioan berdintasuneko lengoaiaren erabilera bultzatzea.</p> |
| <p>G.3. helburua Udalaren eguneroko lanean genero-ikuspegia sustatzea</p> | <p>G.3.1. Udal-kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko gidak egitea.</p> <p>G.3.2. Udal-kudeaketan genero-ikuspegiari buruzko gidak erabiltzea eta udal langileen artean zabaltzea.</p> <p>G.3.3. Udaleko arlo eta zerbitzu guztietako datu bananduak batzea sexuaren arabera.</p> <p>G.3.4. Udaleko ekintzen plangintzak genero-ikuspegia irizpidetzat hartuta antolatzea.</p> <p>G.3.5. Udaleko langileei eta kargu politikoei berdintasunaren inguruko prestakuntza ematea, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 17.</p> |

| | |
|---|--|
| | <p>artikuluari ezartzen den bezala.</p> <p>G.3.6. Balorazio-batzordeetan sexuen arteko parte-hartze orekatua bermatzea emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4, 5, 6, 7. eta 8. artikuluan ezartzen den bezala.</p> |
| <p>G.4. helburua</p> <p>Tokiko jardueretan berdintasunaren alde Gobernantza hobetzea</p> | <p>G.4.1. Jaietako programazioan genero-ikuspegia txertatzea.</p> <p>G.4.2. Antolatzen diren kirol-ekintzetan genero-ikuspegia txertatzea (emakume kirolariak konbokatzea, lehiaketetan emakumeen parte-hartzea bermatzea...)</p> <p>G.4.3. Kultur programazioan genero-ikuspegia txertatzea (ekintzetarako emakumeak kontratatzea, berdintasunaren aldeko baloreak sustatzen dituzten ekintzak programatzea...)</p> <p>G.4.4. Ludotekan eta beste toki batzuetan erabiltzen diren heziketarako materialak berriro aztertzea (jostailuak, ipuinak...), genero-ikuspegitik.</p> |

| BALIOEN ALDAKETA | |
|---|--|
| HELBURUAK | EKINTZAK |
| <p>CV.1. Balioen aldaketa hobetzea, sexuaren arabera egokitutako genero estereotipoak eta rolak errotik kenduz</p> | <p>CV.1.1. Zierbenako gazteen artean berdintasun baloreen pertzepzioari buruzko azterlana egitea, generoaren ikuspegia txertatuta duena, honako alderdi hauetan: bizi-ereduak, harreman-pertsonalak, lan-etorkizuna, aisialdia....</p> <p>CV.1.2. Martxoaren 8an urtero berdintasunaren aldeko ekintzak antolatzea gai ezberdinak aldarrikatuz: emakumeen papera historian, emakume baserritarren papera, emakumeak portuan, zaintza-lanen garrantziaren aldarrikapena...</p> <p>CV.1.3. Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak, bai ikastetxeetan, bai ikastetxeetatik kanpo ondorengo gaiekin: berdintasunean oinarritutako sexu edo afektibitate-harremanak; sare sozialak eta sexu-indarkeria; gizonezkoa izateko beste era bat.</p> <p>CV.1.4. Elkarreei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak, beren jardueretan genero ikuspegia txerta dezaten eta berdintasunezko lengoia eta irudiak susta dezaten.</p> |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | |
|--|---|
| HELBURUAK | EKINTZAK |
| <p>E1. Zierbenako emakumeen banakako ahalduntzea handitzea.</p> | <p>E.1.1. Autoestimua eta genero-kontzientzia hobetzeko ekintzak antolatzea, adin guztietako eta minusbaliotasunen bat duten emakumeentzat.</p> <p>E.1.2. Neska eta emakumeek egiten duten kirola ikusarazteko sentsibilizazio-ekintzak antolatzea.</p> |
| <p>E2. Zierbenako emakumeen ahalduntze kolektiboa handitzea.</p> | <p>E.2.1. Emakumeen elkartean emakume gazteen parte-hartzea handitzea.</p> <p>E.2.2. Udalerriaren historian emakumeek egindako ekarpena eta maila publiko desberdinetan izandako egitekoa ikusaraztea (gizarte, ekonomia, lan-munduan...).</p> |
| <p>E.3. Emakumeen gizarte eta politika mailako ahalduntzea handitzea.</p> | <p>E.3.1. Esperientzia profesionalak dituzten emakume nagusiekin tailerrak antolatzea gazteentzat.</p> <p>E.3.2. Postu erabakitzaileetan emakumeen presentzia sustatzeko sentsibilizazio-kanpainak antolatzea.</p> |

GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA

| HELBURUAK | EKINTZAK |
|--|---|
| O.1. Herritarren erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzea. | <p>O.1.1. Gizonei zuzendutako erantzunkidetasun-tailerrak antolatzea.</p> <p>O.1.2. Zaintzaren eta erantzunkidetasunaren balioari buruzko sentsibilizazio-kanpainak antolatzea.</p> <p>O.1.3. Zaintzaileei laguntza emateko programak egitea.</p> |

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA ERROTIK KENTZEA

| HELBURUAK | EKINTZAK |
|--|---|
| V.1. Genero indarkerian sentsibilizatzea eta prebenitzea. | <p>V.1.1. Genero indarkeriari buruz dauden baliabideen gaineko informazio egokitua ematea Zierbenako emakumeei.</p> <p>V.1.2. Genero indarkeriari buruz dauden baliabideen berri ematea udalerriko elkarte guztiei.</p> <p>V.1.3. Gazteei zuzendutako prebentziorako estrategia erkidea diseinatzea.</p> <p>V.1.4. Mikro-matxismoetan sentsibilizatzeko kanpainak antolatzea.</p> <p>V.1.5. Zierbenan seguruak ez diren guneak aztertzea, beharrezko ekintzak exekutatzea eta intzidentziak jasotzeko neurriak ezartzea.</p> <p>V.1.6. Autodefentsarako tailerrak antolatzea.</p> <p>V.1.7. Azaroaren 25a, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunaren aldarrikapena aurrera eramatea eta konpromisoak adieraztea .</p> <p>V.1.8. Gure herrian emakumeen aurka egindako erasoen salaketa publikoa egitea, komeni bada..</p> |
| V.2. Emakume biktimei babes eta arreta osoa bermatzea | <p>V.2.1. Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Arretarako Tokiko Protokoloa bultzatzea.</p> <p>V.2.2. Udal-zerbitzu eta baliabide guztiak inplikatzeko Tokiko Protokoloa bultzatzeko (merkatariak, kiroldegia, elkarteak, enpresak...)</p> |

Hori guztia kontuan hartuta, hainbat helburu eta ekintza dituen Plana diseinatu da 2015-2019 epealdirako

| ARLOAK | HELBURUAK | EKINTZAK |
|--|-----------|-----------|
| EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA | 4 | 18 |
| BALIOEN ALDAKETA | 1 | 4 |
| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | 3 | 6 |
| GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA | 1 | 3 |
| EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA | 2 | 10 |
| GUZTIRA | 11 | 41 |